

9/2020 AKTA
NAFARROAKO UDAL ETA KONTZEJUEK FEDERAZIOAREN BATZORDE BETEARAZLEAK
AZAROAREN 17an EGINDAKO BILERA

BERTARATUAK:

LEHENDAKARIA:

Juan Carlos Castillo Ezpeleta jn., Azkoiengo alkatea

1. LEHENDAKARIORDEA:

Mario Fabo Calero jn., Martzillako alkatea

2. LEHENDAKARIORDEA:

Ander Oroz Casimiro jn., Antsoaingo alkatea

BATZORDEKIDEAK:

Aitor Larraza Carrera jn., Irurtzongo alkatea
Oihan Mendo Goñi jn., Garesko alkatea
Jesús Esparza Iriarte jn., Kasedako alkatea
M^a Carmen Segura Moreno and., Alesbesko alkatea
Jesús María Arrizubieta Astiz jn., Tafallako alkatea
Raúl Maiza González jn., Berriozarko alkatea
Óscar Bea Trincado jn., Cintruenigoko alkatea
Enrique Maya Miranda jn., Iruñeko alkatea.
Alejandro Toquero Gil jn., Tuterako alkatea.
Pedro José Soto Eguren jn., Gesalazko alkatea.
Cristina Recalde Vallejo and., Artikako Kontzejuko burua
Sabina García Olmeda and., Izarbeibarko
Mankomunitateko lehendakaria
Fernando Ferrer Molina jn., Erriberako Mankomunitateko
lehendakaria
Esther Lacasta Pérez-Illzarbe and., Basaburuako alkatea
David Oroz Alonso jn., Urdiaingo alkatea

Ezin etorria adierazi dute:

Mikel Landabere Villanueva jn., Aurizberriko Kontzejuko
burua
Itziar Semberoiz Garralda and., Espartza Zaraitzuko alkatea
Ángel Martín Unzue Ayanz jn., Agoizko Alkatea

IDAZKARIA:

Berta Enrique Cornago and.

Bi mila eta hogeiko azaroaren hamazazpian, goizeko hamabietan, aldamenean adierazitakoak bildu dira era telematikoan Zoom aplikazioaren bidez, Batzorde Betearazleko kideak baitira. Bilkuraren buru Juan Carlos Castillo Ezpeleta jn. aritu da, eta idazkari, berriz, Berta Enrique Cornago and. Hona hemen

GAI-ZERRENDA

- 1.- Aurreko bilkuraren aktaren berri ematea eta hura onestea.
- 2.- Batzorde eta Kontseilu sektorialeiei buruzko informazioa.
- 3.- Batzorde eta Kontseilu sektorialetako ordezkariak izendatzea.
- 4.- NUKFri atxikitzeke eskaerak.
- 5.- NUKFren Batzar Nagusi Arruntaren deialdia eta gai-zerrenda.
- 6.- 2020ko kudeaketa txostena.
- 7.- 2021eko jarduketaren programa.
- 8.- 2021eko aurrekontua.
- 9.- Lehendakariaren informazioa.
- 10.- Galde-eskeak.

1. PUNTUA- Urriaren 13ko ohiko bilkuraren aktaren berri ematea eta hura onestea.

Aurreko bilkuraren aktaren kopia igorrita deialdiarekin batera, aldez aurretik irakurri beharrik gabe, lehendakariak galdetu du Batzorde Betearazleko inork oharrik duen haren inguruan.

Oroz jaunak, Antsoaingo alkateak, adierazi du ez dagoela bertaratuen zerrendan. Akatsa dela egiaztatu da.

Inork ez du oharrik egin; horrenbestez,

ERABAKI DA:

2020ko urriaren 13an egin bilkuraren akta onestea.

2. PUNTUA. Batzorde eta kontseilu sektorialeko buruzko informazioa.

Lehendakariak egindako Batzorde eta Kontseiluen berri eman du. Era berean, osasun krisiarekin lotuta dituzten Batzorde eta bilera zehatzen berri eman du. Federazioa horietan guztietan egoten saiatu da.

- **Vianako Printzea Erakundea - Kultura Zuzendaritza Nagusia eta Nafarroako udalerririk koordinatzeko Forua (2020/10/26).** Jakinarazi zutenez, foroak balorazio baikorra egin zuen udalek udako kultur programan egindako lanaren inguruan. Bestalde, foroaren funtzionamendua bideratzeko araudia egitea komeni ote den eta NUKFn kulturari buruzko batzorde bat sortzea eztabaidagai izan zituzten.
- **Lurraldea Antolatzeko Batzordea (2020/10/26).** Uharte Arakilgo eta Zarrakatzeluko lurraldea okupatzeko estrategiaren eta ereduaren berri eman zuten.
- **Kontratazio Publikoaren Batzordea. (2020/11/03).** Zenbait plegu eredu egiteko eta Kontratu Publikoen Foru Legea aldatzeko lanetan dihardutela jakinarazi zuten.
- **Nafarroako Merkataritza Kontseilua. (2020/11/06).** Kontseiluan ordezkari gisa dagoenak jakinarazi duenez, Proiektio Ekonomikoko Arloei buruzko lege-proiektu baten izapidetzea hasi dute eta merkataritzaren eraldaketa digitalaren arloan lanean ari dira. Igandeetan eta jaiegunetan irekitzeko proposamenaren berri eman zuten. Maya jaunak, Iruñeko Udaleko alkateak, jorratutako gaien garrantzia ikusita Kontseiluak egindako bilkura horren akta eskatu du.
- **Toki Araubideko Foru Batzordea. (2020/11/03).** Toki Ogasunen Foru Legea aldatzen duen Foru Legearen proiektua mahai gainean gelditu zen zehaztasun handiagoz aztertu ahal izateko.
- **Toki Araubideko Foru Batzordea. (2020/11/09).** Aldeko txostena eman zitzaizen honako hauei: Toki Ogasunen Foru Legeari; Nafarroako Aurrekontu Orokorren Foru Legeari; Oporren eta baimenen araudia aldatzen duen Foru Dekretuaren proiektu bati; eta Nafarroako Kultura Kontseilua

arautzen duen Foru Dekretuaren proiektuari. Aurrekontuei dagokienez, aldeko txostena ematearekin batera zenbait konpromiso hartu zituzten; hala nola, 2021erako Toki Inbertsioen Plan batean eta toki finantzazioaren arloan lan egiteko konpromisoa. Era berean, Oroz jaunak, Antsoingo alkateak, aditzera eman zuenez, 1.000 biztanle baino gutxiagoko udalerrientzako ekonomia-jardueren gaineko zergaren (EJZ) konpentsazioa %100ekoa izatea eskatu zuten toki entitatetako ordezkariak. Edozein modutan ere, konpentsazio hori aldi baterako formula gisa proposatu zuten; lehenengo urterako bakarrik.

- **Nafarroako Ekonomia eta Gizarte Kontseilua.** (2020/11/09). Aurrekontuen berri eman zuten eta Toki Araubideko Foru Batzordeko toki ordezkariaren txostena aurkeztu.
- **Nafarroako Kirolaren Kontseilua.** (2020/11/10). Kirol instalazioetarako dirulaguntza deialdia zuzkidura berarekin berritu egingen dela jakinarazi zuten.
- **Nafarroako Berdintasunerako Kontseilua** (2020/11/12). Kontseilua emakumeek Nafarroako politika publikoetan parte-hartze sozial eta politikoa izateko estrategian lanean ari dela jakinarazi zuten eta Berdinna sarien berri eman zuten.

ERABAKI DA:

Jakinaren gainean daudela adieraztea.

3. PUNTUA- Batzorde eta kontseilu sektorialetako ordezkariak izendatzea.

Hirian Erabiltzeko Uraren Ziklo Integralaren Nafarroako 2019-2030 Plan Zuzentzaileari jarraipena egiteko batzorderako izendapenak egiteko eskaeraren berri eman eta kide eta ordezko bana izendatu beharra dagoela zehaztu dute.

Era berean, Nafarroako Kultura eta Arteen Kontseilurako bi ordezkariaren izendapena eskatu dute; udal teknikariak izan behar dira. Iruñeko Udaleko teknikari bat eta beste udal bateko beste teknikari bat izendatzea proposatu dute.

Afera eztabaidatu ostean,

ERABAKI DA:

Honako izendapenak onestea:

- Hirian Erabiltzeko Uraren Ziklo Integralaren Nafarroako 2019-2030 Plan Zuzentzaileari jarraipena egiteko batzordea.
 - Kidea: Maria Carmen Segura, Alesbesko alkatea.
 - Ordezkoa: Juan Jesús Echaide Baigorri, NUKFko teknikaria.

- Nafarroako Kultura eta Arteen Kontseilua.
 - Javier Manzano Garayoa. Iruñeko Udaleko udal teknikaria.
 - Kultur Teknikarien Elkarteak proposatutako udal teknikari bat.

4.-NUKFri atxikitzea.

Artiedako Kontzejuak NUKFri atxikitzeko egindako eskaeraren berri eman da.

ERABAKI DA:

Entitate horren eskaera aintzat hartzea. Horrenbestez, entitatea NUKFko kide izatera igaroko da bilkuraren egunetik aurrerako ondorioekin.

5. PUNTUA. - NUKFren Batzar Nagusi Arruntaren deialdia eta gai-zerrenda.

NUKFren Batzar Nagusiaren deialdia eta gai-zerrenda onestea proposatu da. Halaber, egoera epidemiologikoa dela medio, Batzarra era telematikoan egitea proposatu da deialdiarekin batera igorritako eta akta honi atxikitako proposamenean adierazitako baldintzetan.

Idazkari Nagusiak Batzarra era horretan egin ahal izateko lege gaikuntzaren berri eman du eta Batzarraren martxa arintzeko eta hobetzeko jarraitu beharreko proposatu diren arauak azaldu ditu. Halaber, Batzarra ahalik eta berme handiagoekin egin ahal izateko aplikazio aproposena aztertzen ari direla zehaztu du. Zehazki, horretan aditua den enpresa batek aurkeztutako proposamena aztertzen ari dira. Batik bat, ziurtatu beharra dago aplikazioak bertaratutakoak identifikatu eta akreditatu ahal izatea eta bozketa sistema segurua bermatzen duela.

ERABAKI DA:

Abenduko Batzar Nagusi Arrunterako deia eta gai-zerrenda onestea proposatutako baldintzetan.

6. PUNTUA: 2020ko Kudeaketa Txostena.

Lehendakariak kudeaketa deialdiarekin batera igorri den txostenaren alderdi adierazgarrienak azaldu ditu. Hein handi batean, pairatzen ari garen osasun krisiak Kudeaketa Txosten hori baldintzatu du.

Ondoren, hitza eman zaie bertaratutakoei kudeaketa txostenaren inguruko ekarpenak egin ditzaten.

Maya jaunak, Iruñeko alkateak, txostenean Bizigarritasunaren Dekretu berri bati erreferentzia egiten zaiola adierazi du eta NUKFk dekretu horren izapidetze prozesuan parte hartzea eta dekretuari ekarpenak egitea garrantzitsua dela esan du. Arrizubieta jaunak, Tafallako alkateak, adierazi duenez ezinbestekoa da araudia malgutzea hiri eta herriguneetako alde zaharrak birgaitu ahal izateko. Toquero jaunak, Tuterako alkateak, behar hori berretsi egin du.

Lehendakariak esan du, dagoeneko Etxebizitzako zuzendari nagusiarekin bilera bat eduki zutela eta behar hori helarazi zitzaiola malgutze falta horrengatik ezin delako bigarren eskuko etxebizitzarik ere erabili eta abar. Horrengatik, Federazioa dekretu horren tramitazioari erne egonen dela adierazi du.

Batzorde Betearazlearen bozketara jarrita,

Aldeko hamar boto eta zortzi abstentzio daudela,

ERABAKI DA:

2020ko Kudeaketa Txostenaren proposamena onestea Batzar Nagusiaren onespenera jartzeko.

7.- NUKFren 2021eko Jarduketaren Programa.

Lehendakariak jarduketaren programaren punturik aipagarrienak berrikusi ditu.

Ondoren, hitza eman die bertaratutakoei.

Oroz jaunak, Antsoingo alkateak, programa aurreko urtekoaren antzekoa dela adierazi du, gehienbat, pandemia dela medio jarduketa asko ezin izan direlako egin. Kudeaketa txostenean aipatzen diren lantaldeei dagokienean esan du, halaber, askok ezin izan dutela bilerarik egin eta aurten ahalegina egin beharko litzatekeela, egungo egoera zaila den arren, lantalde horiek ahal den moduan bildu ahal izateko.

Bozkatu ondoren, aldeko bederatzi botorekin eta zortzi abstentziorekin,

ERABAKI DA:

2021eko Jarduketaren Programaren proposamena onestea Batzar Nagusiaren onespenera jartzeko.

8. PUNTUA.- 2021eko Aurrekontua.

Lehendakariak azaldu duenez, ez dago aldaketa nabarmenik aurreko urteko aurrekontuarekin alderatuta. Ohi den moduan, NUKFren aurrekontuak, Concejo aldizkariarenak eta Trebakuntza Planarenak osatzen dute federazioaren aurrekontu orokorra. Horietaz gain, hiru programa horien emaitza bateratua aurkeztu da haien arteko barne transferentziak kenduta.

Ondoren, Cabases jaunak aurrekontuak eta bariazio indize handiena duten diru-partidak azaldu ditu zehatzago. Azaldu duenez, bariazio txiki bat dago garbiketari dagokion diru-partidan osasun krisiagatik pixka bat handitu baita. Aholkularitza teknikoen partida aldiz txikitu egin da.

Ondoren, hitza eman die bertaratutakoei.

Fabo jaunak, Martzillako alkateak, esan du Concejo aldizkariaren aurrekontuan ez duela gastuen diru-partidei dagokien behin behineko likidazioa ikusten. Cabases jaunak hala dela berretsi du eta azaldu du aldizkariaren aurrekontuan NUKFk bere gain hartzen duen defizita soilik agertzen dela soilik iragarkiengatik izandako diru-sarrerak kendu ondoren.

Fabo jaunak, Concejo aldizkariaren inprimatze eta argitalpen gastuei ere heldu die. Gastu horiek murrizteko, zinegotziei egiten zaien bidalketa ez egiteko aukera proposatu du. Cabases jaunak azaldu du aldi-aldi hautetsi guztiei aldizkaria paperean edo modu digitalean jasotzeko aukera ematen zaiela.

Batzorde Betearazlearen bozketara jarrita, aldeko bederatzi boto eta zazpi abstentzio daudela,

ERABAKI DA:

2021erako aurrekontuen proposamena onestea Batzar Nagusiaren onespenera jartzeko.

9. PUNTUA.- Lehendakariaren informazioa.

Lehendakariak honako gai hauek aipatu ditu:

- Toki Administrazioaren Zuzendari Nagusiarekin egindako koordinazio bilerak. Horietan, osasun murrizketekin lotutako honako gaiak izan zituzten hizpide: erabilera anitzeko lokalentzako neurriak adierazi beharra; udal hilerriei buruzko zenbait gai argitzea; aurrez aurreko osoko bilkurak egitea; haur eskoletako hezitzaileei PCR probak egiteko beharra eta abar. Horretaz gain, ez ohiko gastuengatik jaso beharreko ordainketen inguruan galdetu zuen Federazioak, bai eta gizarte zerbitzu-tako mankomunitateen hitzarmenen inguruan edota 0-3 urtekoen ikastetxeen hitzarmenen inguruan ere. Halaber, bilera horietan aurrekontuak bizkorrago betetzeko eta gerakinak erabiltzeko Toki Ogasunen Foru Legean egin beharreko aldaketak jorratu ziren.

- Poliziarekin izandako koordinazio bilerak. Bertan, biztanleriari egindako baheketen eta ospitaletako arretaren egoeraren berri eman zuten. Halaber, kutsadurak ekiditeko onetsiz joan diren neurrien berri ere eman zuten: konfinamendu perimetrala, etxeratzeko agindua eta abar.
- Urriaren 19an izandako FEMParen Lurralde Kontseilua. Bertan, FEMParen lehendakariak 2020an eta 2021ean aurrekontuen egonkortasunaren eta gastu-arauaren etetea berehalakoan onetsi eginen zela jakinarazi zuen eta gerakinak gastu arrunterako erabili ahaliko direla. Halaber, lehendakariak Kongresuan onesteko proposatu dituzten bestelako neurriak adierazi zituen; besteak beste, zailtasunak dituzten udalentzako finantzazioa eskatzea, 3.000 euroko laguntza-funts bat sortzea eta garraiorako funts bat onestea. Era berean, FEMPeK Europako funtsak zuzenean susperraldirako ematea defendatuko duela jakinarazi zuen.
- Urriaren 20an Etxebizitzako Departamentuak eta zenbait udalek izandako bilera etxebizitza hutsen eroldaren inguruan. Bilerara bertaratutako udaletan etxebizitza hutsak atzemateko eta erroldatzeko urratsen berri eman zuten.
- Urriaren 20an Europako funtsen gaia jorratzeko sortutako taldeak eginiko bilkura. Talde hori Lurralde Kohesiorako Kontseilariak eta zuzendari nagusiak, Lehendakartzako aholkulari batek, CPEN entitatearen zuzendariak eta NUKFko lehendakariak zein lehendakariordeek osatzen dute. Bilera horretan, aipatu funtsekin zer lagunduko den diruz eta proiektuak aurkezteko prozesuan bizkor ibili beharra hizpide izan zuten. Azken horretarako, araudia aldatu eginen da. Horretaz gain, funts horiek eskuratzeko bi bide aipatu zituzten. Bata, funts horietara bideratutako Toki Inbertsioen Plan baten bidez eta, bestea, toki entitateek proposatzen dituzten proiektuen bidez. Bi lan-ildoak bateragarriak dira.
- Landa Garapeneko Departamentuarekin izandako bilera Animaliak Babesteko Foru Legea aplikatu eta garatzeko. Udal ordenantza baten zirriborroan eta aipatu legearen arau-hausteetarako zehapen prozeduran lanean ari dira. Halaber, animaliak biltzeko zerbitzua ez duten entitateen eta Etxauriko zentroaren arteko hitzarmen bat lantzen ari dira animaliak jasotzeko.
- Barneko Departamentuak zezen ikuskizunetarako (entzierroak) sortutako lantaldea. Talde horretan, Mario Fabo Calero Federazioaren lehenengo lehendakariordea eta Fernando Sierra Estoduto Korteko alkatea egonen dira toki entitateen ordezkari gisa.
- B mailako kontu-hartzaitzako postuak betetzeko lekualdatze-deialdia. Deialdi hori Toki Mapa Berrantolatze Foru Legean jasotzen da eta epaimahaian NUKFren parte-hartzea aurreikusita dago. Parte-hartze hori Kontuen Ganberako teknikari baten bidez bideratuko da.
- Administrazio elektronikorako laster sortuko den lantaldea. Toki Administrazioaren Departamentuak abiatuko du taldea eta NUKFk proposatu du egokia izango litzatekeela taldean NUKFko teknikariak eta gaian aurreratutako dauden beste udaletako teknikariak egotea, hala nola Iruña, Tuter eta Eguesko udaletako teknikariak bai eta parte hartzeko asmoa adierazten digutenak ere bertan egotea.
- Iruñeko Udaltzaingoak jakinarazitako arazoa jaiegunengatiko konpentsazioarekin lotutako epai baten inguruan.
- Bizigarritasunari buruzko Foru Dekretu berri baten tramitazioa.
- FEMPeK Estatuko Aurrekontu Orokorrei egindako zuzenketa-proposamenak eta horiek babesteko Lurralde Federazioei eginiko eskaera. Proposamen horrek barne hartzen duen neurri sortak, hein

handi batean, toki esparrutik aldarrikatzen ari diren eta aurrekontuen proiektuan jasota ez dauden beharrak biltzen ditu. Neurri horien artean daude, esate baterako, aldarrikatutako 3.000 euroko funtsa, garraiorako funts berezia, gastua arintzeko neurrien eskaera, erreposizio tasa kentzea, udal langileentzako trebakuntza planak bizkortzea eta abar.

Neurri horiekin lotuta, Oroz jaunak, Antsoingo alkateak, galdetu du ea zer nolako babesa eskatzen duen FEMPEk eta ea ekarpenak egiteko denborarik dagoen. FEMParen organoek dagoeneko onetsi dituzten zuzenketa-proposamenak direla azaldu diote eta aurretik onetsitakoak jasotzen dituztela. Babesa eskatu dute talde parlamentarioen babes handiagoa lortzeko.

ERABAKI DA:

Jakinaren gainean daudela adieraztea.

10. PUNTUA- Galde-eskeak.

Toquero jaunak, Tuterako alkateak, proposatu du Nafarroako Gobernuako Lehendakariari beste bilera bat eskatzeko eskualdeetako hiriburuen udalekin maiatzan egin zen moduan. Adierazi duenez, oso bilera interesgarria izan zen eta bertan halako bilerak aldian-aldian egitea proposatu zuten.

Lehendakariak esan du Gobernuako lehendakariari eskaria igorriko diola.

Esparza jaunak, Kasedako alkateak, galdetu du ea SGAEren aferaren inguruan urratsik eman den egin ezin izan diren ikuskizunen eta jardueren tasak ez ordaintzeko edo horiek murrizteko. Idazkari nagusiak jakinarazi dio eskaria eremuko ordezkariari helarazi ziotela eta aztertu eginen zutela eta arrazoizkoa iruditzen zitzaiola adierazi ziela.

Eta aztergai gehiagorik ez dagoela, lehendakari jaunak bilkura amaitutzat eman du, goiburuan aipatzen den eguneko hamalauak direnean. Idazkari naizen honek honako akta idatzi eta horren fede ematen dut, eta lehendakariarekin sinatu dut.

LEHENDAKARIAREN ONIRITZIA,

IDAZKARIA,

Juan Carlos Castillo Ezpeleta jn.

Berta Enrique Cornago and.